Udate bete

2016ko abuztua 26 OSTIRALA

Ostiraletako aisialdi gehigarria

> EGUN-PASA: Ruta del Txakoli > ELKARRIZKETA: Caroline Phillips > OLATUA: Balearri, Zarautz > REPORTAJE: Viajar, «combustible» para el cerebro > TIEMPO DE: Pimientos y guindillas > eta, gainera, JAIAK, AGENDA, EZIN KALE EGIN...




# EUSKAL RAPA: BASAMORTU BAT OASI BIHURTUTA

Euskaraz egindako rapak gorakada azkarra bizi izan du urte gutxian. Selektah Kolektiboak 2000. urtean kaleratu zuen euskal raparen lehen diskoa, erreferentzia bihurtuz. Ordutik hona talde, disko eta kontzertuak Euskal Herriko txoko guztietara heldu dira, eta orain dela gutxira arte pentsaezina zirudiena ere gertatu da: gero eta gehiago dira hip hop musikaren munduan murgiltzen diren emakumeak.

Testua: **Iker AGINAGA** Argazkiak: **La Basu, Endika Abella, 121 crew, EH 2000**

Selektah Kolektiboak Euskal Herriko musikaren historian mugarri izango zen diskoa kaleratu zuen 2000. urtean. Taldearen izen berarekin plazaratu zen, eta euskarazko lehenengo hip hop diskoa izan zen. Euskal rapa jaioa zen, beraz, eta, orduan gutxi batzuek espero arren, gelditzeko heldu zen. Aurretik ere emanaldiak eskainiak zituen Selektah Kolektiboak, Ameriketako Estatu Batuetatik heldutako erritmo eta estiloak bai gaztetxeetara bai Euskal Herriko jaietara eramanez. Hip hopak guren emandako lehen pausuak ziren.

Lehen eraginak Atlantikoaren beste aldetik heldu zitzaizkien Selektah Kolektiboko kideei, Estatu espainiarreko beste rap

musikari eta disko jartzaile ugariri bezalaxe.

Selektah Kolektiboaren lehendabiziko diskoa kaleratzearekin batera, Barakaldoko bi gazte ere hip hop musikaren munduan lehen pausoak ematen hasi ziren. 121 Krew izenez, grafiti talde bat bezala hasi zen mugimenduaren lehen adierazpen musikalak egin zituzten Endika Abella *La Haine* abeslariak eta Doble R disko jartzaileak. Hasiera «zaila» izan zela dio Abellak, oso rap gutxi entzuten baitzen Euskal Herrian. Gaur egun, aldiz, mugimendu indartsua ez dagoen arren, «egitura handiagoa» dagoela uste du, «eszena bat». Bere garaian gauzak «motelagoak» ziren.

Abellak azaldu bezala, hasiera batean, «lagunekin elkartzea, rapeatzea eta ondo pasatzea» zen taldearen egitekoa. «Gure lehen kontzertua, agertoki gainean eta mikroekin, 2006an izan zen», gogoratu du. Hau da, taldea sortu eta sei urtera.

Ordurako Selektah Kolektiboa deseginda zegoen, urte bat lehenago, hain zuzen, 2005ean desagertu baitzen. Desegin aurretik bigarren estudioko lana grabatu eta kaleratua zuen laukoteak, Esan Ozenki diskoetxearekin 2002an argitaratutako "Esperientzien etorbidetik˝.

Abellarentzat zein garaian Euskal Herrian hip hopa egiten zuten beste askorentzat, erreferente izan zen Selektah Kolektiboa. Barakaldarra rapa kantatzen hasita zen ordurako, baina ez zuen oraindik euskaraz egiteko hautua hartuta, eta onartzen du «bultzada» izan zela Selektah Kolektiboak diskoa ateratzea.

121 Krew bikote gisa hasi bazen ere, zortzi kide ezberdin izan ditu talde gisa daramatzan hamasei urteotan. Orain sei dira: La Haine (abeslaria), Maisha (abeslaria), Lamá (abeslaria), Rufoh (abeslari eta beatboxerra), Hawa (disko jartzailea) eta David Nanclares (gitarra).

Dagoeneko lau disko kaleratu ditu taldeak eta bosgarrena ere abian dute. Abellak dioenez, euren asmoa bete dute hamasei urteko ibilbide oparoan: «Hip hoparen munduan euskaraz ibilbide bat jorratzea lortu dugu pixkanaka-pixkanaka, gure harri-pikorra jartzea».

## "MAHATSEN DENBORA/AZKEN AFARIA" 121 KREW TALDEAREN LAN BIKOITZA KALERATUKO DU IRAILEAN TAUPAKAK

**121 Krew euskal rap seikote barakaldarra lan berria kaleratzear da, Taupaka elkartearen eskutik. Hain zuzen ere, taldearen bosgarren estudioko lana izango da, eta, "Hiriaren Taupadak" beren aurreko lana bezalaxe, kolaborazio ugarirekin dator: Budi, Norte Apache, Gorka Suaia Rasy Simone eta Neza.**

**Izen bikoitza lan bikoitzerako. "Mahatsen denbora" izenarekin, taldeak hamar abesti berri aurkeztuko dizkio entzuleari, eta, horrez gain, "Azken afaria" barakaldarren hamasei urteko ibilbide luzearen bilduma bat izango da. Oraindik data zehaztu gabe badute ere, lan bikoitza «oporretatik bueltan» kalean egongo dela adierazi du seikoteak sare sozialetan. Horrenbestez, datozen asteetan gozatzeko aukera izango dute jarraitzaileek. Aurrerapen moduan, ekainaren 28an "Arkakusoak" kantaren bideoklipa aurkeztu zuten sare sozialen bidez, Parisko Arkakusoen Merkatuan grabatutakoa eta Maisha taldeko MCetako batek ekoitzitakoa.**

**Diskoa erosten duenak, gainera, sorpresa bat jasoko du. Izan ere, lana kontzertu bakar batekin aurkeztuko du taldeak irailean eta diskoaren lehenengo 150 aleetako bat eskuratzen duenak kontzertu horretarako sarrera jasoko du, Endika Abella *La Haine* taldeko MCak kontatu digunez.** I.A.

### Basamortutik oasira

Beste talde askok egin diote ekarpena euskal raparen munduari Selektah Kolektiboak hasitako bidea jarraituz. MAK talde lapurtarra, adibidez, euskal raparen aitzindarietako bat da, 2005ean argitaratu baitzuen lehen diskoa "Suari darion kea" izenpean. Geroago, beste bi etorri ziren: "Suaren garai errauts errekai" (2007) eta "Hautsa bizigai" (2014).

Bilbon Norte Apache sortu zen 2007an. Ordutik hona, lau estudio lan eta zuzeneko disko bat kaleratu ditu Rayco (MC), Ibon (MC) eta Aitorrek (DJ) osatutako taldeak. Estudioko lau lanekin eta zuzeneko disko batekin, ibilbide oparoa egin dute euskal raparen eszenan eta Bizkaiko hiriburuko erreferente bilakatu dira euren estiloan, orain geldirik dauden arren.

Aipatutakoez gain, beste izen pilo bat ere gehitu daitezke zerrendan: Norzzon, 2zio, Glaukoma, Bad Sound System... Hori







bai, azken bi taldeak reggae musikatik hurbilago daude. Glaukoma, Bad Sound System edota Kodigo Norte bezalako taldeek gogor jarraitzen dute lanean egun ere, Endika Abellak esan bezala, hasiera batean «basamortu bat» zen baina gaur egun jende askori esker «oasi» bihurtu den euskal eszena indartzen.

### Sustrai berriak

Oraindik askori arraro egin arren, Barakaldo euskal raparen harrobi dela egiaztatu da urteotan. 121 Krew taldearen bidetik, beste bi belaunaldik hartu dute lekukoa, hip hop kultura eta euskara uztartuz. Endika Abella beraren gidaritzapean, beste bi talde sortu dira herrian.

Lehenik eta behin, 2008an, Revolta Permanent jaio zen, 121 Krew taldearen lekukoa hartuz. Azkena heltzen, berriz, EH2000 bikotea izan da. Orain lau urte hasi ziren rapa kantatzen Abella beraren laguntzarekin, Gorka Gomez kidetako batek azaldu bezala. 12 urte besterik ez zituztela hasi ziren bera eta Eneko Fernandez rapa abesten. Dagoeneko hainbat kanta sortu dituzte bi gazteok, eta Barakaldon eta inguruetan zenbait kontzertu ere eman dituzte.

Urteotan bizitako aldaketaren eredu dira Endika eta Gorka. 121 Krew taldeak, izan ere, sei urte eman zituen kalean rapa kantatzen lehen kontzertua eman arte; EH2000 bikotea, berriz, hasiera-hasieratik ari da taula gainean. «Presarik gabe» ari badira ere, disko edo maketa bat grabatzeko aukera askoz eskuragarriago dute gaur egun, teknologiak eta Internetek emandako erraztasunak tarteko.

### Hizkuntzaz harago

Euskaraz izatea da euskal raparen ezaugarririk nabarmenena, noski. Abella eta Gorka euskaraz aritzearen zergatiei buruz aritu dira. Lehenaren kasuan, ez zen berehalako erabakia izan. 121 Krew taldeak gazteleraz hasi zuen bere ibilbidea, baina 2004 aldera euskarazko lehenengo kantak idazten hasi ziren «modu naturalean». Taldekide guztien ama hizkuntza gaztelera izanagatik, euskara maite zutela eta horregatik hartu zutela erabaki hura gogoratu du Abellak. Ez zen erabaki erraza izan. «Badago adin bat non euskararen kontrako joera hartzen den, ikastetxean inposatutako zerbait balitz bezala. Denborarekin konturatzen zara oso erratuta zinela», gogoan du.

Endika Abellaren ereduak eraman zituen EH2000 bikoteko gazteak euskaraz aritzera: «Ez geneukan euskaraz aritzeko inongo arazorik, eta, Endikarekin hasi ginenez rapeatzen, horrela hasi ginen». Endikaz gain, beste erreferentzia batzuk ere izan dituzte gazteok. Ikastetxe berean ikasi zuten Revolta Permanent taldeko kideak nabarmendu ditu Gorkak, baina Norte Apache ere izendatzen du euren «gidarien» artean, alegia, «egun aktiboago dauden taldeak».

Hizkuntza ez da, baina, euskal rapa bereizten duen gauza bakarra. Izan ere, ia estilo propio bihurtu duen ezaugarri bat du euskarazko rapak: konpromisoa. «Euskal rapean ez da homofobia edo sexismoarentzat lekua», dio Abellak. Horrek, bere ustez, «ohiko raperoetatik» aldentzen ditu euskal rap abeslariak. Bai Abellak bai Gorkak euskal rapa «hizkuntzaz harago doan zerbait» dela uste dute.

121 Krew taldearen kasuan, rap frantsesaz «edaten» duela dio Abellak. Rap soziala izan zen nagusi Estatu frantsesean garai batean, Keny Arkana zelarik horren ordezkaririk ezagunena. Tamalez, hori galtzen ari dela uste du Abellak, trap estilo berriaren eraginez gehienbat. Hala ere, Abellarentzat ezinbesteko eredua izan zen orain dela urte gutxiko rap frantziarra. Gorkak ere «oso argi» du garai batean nagusi zen rap soziala dela bere hautua. «Inor mindu gabe» kantatu nahi du.

### Emakumeak heldu dira

Kostata eta berandu, baina emakumeak ere heldu dira euskal rapera. Horren erakusle argiena Elena Caballero dugu, *La Basu* izenez askoz ezagunagoa.

Harro esan dezake La Basuk rap disko bat euskaraz sortu eta argitaratzen lehendabiziko emakumea izango dela. Orain dela hilabete bi aurrerapen EP kaleratu ondoren, abenduan "Izotz Erregina" izenpean ikusiko du argia bere lehendabiziko lan luzeak. Euskara hutsez.

Ez pentsa, hala ere, hasiberria denik La Basu raparen munduan. «Orain dela hogei urte hasi nintzen, gazteleraz». Garai hartan «ezinezko» ikusten zuen «euskaraz rapeatzea», baita, besterik gabe, «rapeatzea bera ere». Gogoratu duenez, «oporretara Burgosera joaten nintzen, herrira, eta bertan hasi nintzen, hemen [Bilbon] ezer ez zegoelako». Bertako lagun batek rap zinta bat utzi zionean, argi eduki zuen: «hau da nik egin nahi dudana». Hala, udako oporrak rapa kantatzen pasatzen zituen.

Taldea sortzea erabaki zuen handik gutxira, bost emakumek osaturikoa: Jungla Urbana. Diskorik grabatu ez arren, kontzertuak ematen aritu ziren Euskal Herrian zehar, garaian batere ohikoa ez zen zerbait lortuz: emakumeak taula gainean hip hopean aritzea. Gaixotasun batek jota 2002an utzi zituen agertokik La Basuk, urte bat lehenago "#k" lehen maketa kaleratu ostean, Madrilen grabatua. Eszenara bueltatzeko "Aire es vida" maketa atera zuen eta bertan euskarazko kanta bat sartzeko gogoa piztu zitzaion. Lehen pausua euskal rapak emakume ordezkaritza izan zezan.

Euskararen borroka eta emakumeena «oso poliki» doazela uste du La Basuk, bai rapean bai oro har. Baina berak bi borrokei eusten die. Serio hartzeko moduko gaiak dira eta bilbotarrak oso serio hartu ditu, egia esan. Formakuntza saioetan aritu da azken urteotan Aneguria lagun eta kidearekin. Era horretan, Euskal Herrian eta emakumeen artean «ereduak sortzea» nahi du, gero eta neska euskaldun gehiago saia daitezen rapa egiten. Bere garaian eredu falta handia izan zuen eta belaunaldi berriek arazo bera ez izatea du helburu. Azken finean, euskal rap maskulinoak basamortutik oasirako bidea hartu duen bezalaxe, emakumeen euskal rapak ere lehen zuhaixkak landatzea da La Basuren borroka.

## KONTRAKO JOERA

**Estilo batzuetan, asko dira Euskal Herrian ingelesez edo gazteleraz sortzen diren taldeak. Rapean, aldiz, euskara pisua hartzen ari da. Are gehiago hizkuntza indartsu ez den Barakaldo bezalako herri handietan, Endika Abellak nabarmendu bezala.**

## AUTOGESTIOA

**121 Krew taldeak, euskaraz abesten duten beste hainbatek bezalaxe, autogestioaren bidea hartua du. Taupaka elkartearekin egiten dute lan, Copyleft eta Creative Commons gisako lizentzien aldeko apustua eginez.**

## ETORKIZUNA

**Barakaldok rap abeslarien hiru belaunaldi ditu jada. Endika eta Gorka «hurrengoaren zain» daude, eredu gehiago izan daitezen. «Eta emakumeak ere behar dira!», gehitu du Endikak.**





**Gero eta rap talde gehiagok osatzen dute euskal eszena. Argazki nagusian, Endika Abella eta Rayco Norte Apache, EH 2000, La Basu eta 121 Krew.**

## EGUN-PASA> AIARALDEA

# TXAKOLI, EL OTRO VINO ALAVÉS

AFRUTADO, LIGERAMENTE ESPUMOSO, CON UN TOQUE ÁCIDO Y REFRESCANTE... Y ALAVÉS. SÍ, PORQUE EN ARABA NO TODO ES RIOJA ALAVESA. EL TXAKOLI LLEVA TRES DÉCADAS LABRÁNDOSE UN MERCADO EN LA COMARCA MÁS NOROCCIDENTAL, LA DE AIARA, QUE CUENTA YA CON SU PROPIA RUTA DE DEGUSTACIÓN.




**Joseba VIVANCO**

El cartulario de Valpuesta recoge una referencia en el año 864 de viñas en Retes de Tudela, un pequeño y elevado núcleo histórico perteneciente a Artziniega, cruce de caminos en los límites de Araba, Bizkaia y Burgos. Hoy su cultivo apenas se conserva en la zona, pero sí ha resurgido y con fuerza en la Tierra de Ayala, donde el cartulario de San Millán de la Cogolla ya señala referencias de que en el año 946 se cultivaban viñedos en la zona. En los siglos XIII al XV su presencia estaba muy extendida en lo que hoy es Aiaraldea y en los archivos de Errespalditza se localiza la primera aparición del término 'chacolín' en registros municipales vascos, datada en 1623. Un vino con mil años de historia muy arraigado en esta comarca noroccidental alavesa, que en la actualidad trabaja para hacerse su propio hueco entre los reconocidos caldos vizcaino y guipuzcoano.

En junio de 1988 se constituyó la Asociación Alavesa de Productores Artesanos de Txakoli, aunque no fue hasta una década después cuando tuvo lugar la presentación del Arabako Txakolina. A día de hoy, dicha entidad está integrada por 24 miembros, desde alojamientos, hasta casas rurales y establecimientos hosteleros, además de bodegas. Y en la mente una meta común, la apuesta por la Ruta del Txakoli, trazada en 2012 y actualmente integrada en la Asociación Española de Ciudades del Vino (ACEVIN) y en el club de producto Euskadi Gastronomika.

Hasta siete bodegas forman parte de la oferta txakolinera por la que la comarca ha apostado fuerte como reclamo turístico. Las laudioarras Garate y Beldui, las amurrioarras del Refor (Xarmant), Txomin Solaun (Mahatxuri), Artomaña (Eukeni), Arzabro en Delika (Ametsa), Goianea en Saratxo (Bat Gara-Uno), además de Señorío de Astobiza en Okondo. En Aiaraldea encuentra, ancestralmente, un clima y orografía propicios para su cultivo y un matiz que quizá le aporte más cuerpo que al de sus vecinos vascos. Se compone principalmente (80%) de la variedad de uva Hondarribi Zuri.

Benito Pérez Galdós en sus "Episodios Nacionales" citaba el txakoli de Amurrio en 1899 y en otro enclave histórico en su cultivo como es Laudio, el viajero Joan Mañé i Falquer se refería en sus escritos en 1879 al txakolí «más estimado de Vizcaya» Estamos ante una de las Denominaciones más jóvenes del panorama vinícola estatal, la de menor extensión, pero que cerró la última campaña con récord de producción, 646.453 kilos de uva, un volumen de 550.000 botellas con la calificación de «muy buena». Un caldo que camina firme en su introducción en los mercados extranjeros –el 40% de la producción se exporta–, donde ya recibe laureles, pero que se esfuerza para conquistar el verdadero mercado, el del paladar de cada vez más amantes de este producto a la sombra todavía del vino de Rioja Alavesa.

Según datos recientes de la asociación Aiaratur, parejas y grupos de amigos son los principales demandantes de esta Ruta del Txakoli, predominantemente de otras zonas del Estado, y cuyo gasto medio por persona y día en la comarca es de 133 euros. Visitar las bodegas, probar sus vinos y aprovechar la gastronomía que algunas de ellas ofrecen con sus restaurantes y menús ligados al propio txakoli, es el gancho para visitar esta zona de Euskal Herria que ha tomado este vino como reclamo.

Una invitación al paladar que puede acompañarse de visitas a rincones como la villa histórica de Artziniega y sus museos etnográfico o de Santxotena, el del licor de Amurrio, el recomendado conjunto monumental de Kexaa o escapadas por su naturaleza. Un rincón vasco por descubrir, un txakoli por catar.



**Instalaciones de la bodega Señorío de Astobiza en Okondo.**
Monika DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

## NIRE UDA ONENA>



**CAROLINE PHILLIPS**
GARAPEN KONTSEILUKO PRESIDENTEA, ENPRESARIA ETA MUSIKARIA

# *«Bi uda horiek nire bizitza aldatu zuten; bestela, ez nintzen Euskal Herrian biziko»*



**Gaur egun Garapen Kontseiluko presidente eta musikaria dena, kaliforniarra da izatez, bertan bizi izan zen 19 urterekin Parisera joan zen arte.** IBob EDME

### DATUAK:

**MUSIKARIA**
Zarrabetea eta pianoa jotzen ditu, kantaria ere bada, Bidaia taldean.

**PRESIDENTEA**
Euskal Herriko Garapen Kontseiluko presidente izendatua izan zen 2015ean.

**ENPRESARIA**
Enpresa txiki eta ertainei komunikazioa eta webguneen sorrera proposatzen dien Phillips Consulting-eko burua da.

**YOGIA**
Baionako Bestetako hitzordu berezienetako baten gibelean dago, gaur egun ezaguna den "Bestetako yoga" antolatu zuen 2010ean lehen aldiz.

**POLIGLOTA**
Hamar hizkuntzetan kantatzen du, eta bost mintzatzen ditu.

Idoia ERASO | **URRUÑA**

San Frantzisko ondoko Oakland hirian pasatu zuen haurtzaroa eta gaztaroaren parte bat Caroline Phillipsek. Euskal Herriraino ekarri duen bidea 13-14 urte zituela abiatu zuen. Urtero joaten zen udalekuetara, eta orduan, frantsesa ikasteko berezi batera joan zen. Aurrerago, 19 urterekin, Parisera joan zen hizkuntza hobetzeko, eta bertan ezagutu zuen bizitzan eta musikan bikote izan duen Mixel Ducau baionarra.

«Haurra nintzenean udaro udaleku batera bidaltzen ninduten gurasoek, munstro bat nintzelako», azaldu digu umoretsu Phillipsek. Bi urtez San Frantziskotik hiru orenetara dagoen Sierra Nevadara joan zen: «Hango zuzendaria Marcel Marceauren ikasle bat zen. Egun osoan aritu behar genuen frantsesez, hitz bat ez bagenuen aurkitzen mimoen bitartez adierazi behar genuen. Bost hitz ingelesez esaten bagenituen, garbiketa egin behar genuen. Ni inoiz ez naiz etxekoandre ona izan, beraz, horrela ikasi nuen frantsesa».

Ikasteaz gain, ondo pasatzeko, bestelako ekintzak ere egiten zituzten. Goizeko ikastaroen ondotik hainbat jarduera egiten zituzten, eskalada, belaontzia edota paseatzea. Baita artistikoagoak ere, han izan zuen antzerkiarekin lehen kontaktua: «'Le Mariage de Figaro' eta 'Le Petit Prince' egin genituen, eta geroztik antzerkia egiten segitu nuen. Horren ostean, lizeo artistiko batera joan nintzen, non antzerkiaz gain, inprobisazioa, dantza, musika... egiten genituen lau orduz egunero».

> *Egun osoan behar genuen frantsesez aritu, bost hitz ingelesez esaten bagenituen garbiketa egin behar genuen.*

**Parisetik Euskal Herrira**

Musika ere garai horretatik izan du bere bizitzan lagun. Parisen hiruzpalau urtez kantu klasikoa ikasi zuen eta gero jazza egitera pasatu zen. Mundu horretan ezagutu zuen senarra duen musikaria: «Estudio batean ezagutu nuen Mixel, saxofoia bazuen espaldetan, bere begi urdin politak ikusi nituen, eta hartua izan nintzen. Bi urteren ondotik Euskal Herrira etorri nintzen lehen aldiz, eta gero gelditzeko bueltatu nintzen, duela 24 urte».

Bizpahiru urte geroago elkarrekin abesten hasi ziren: «Guk biok 'Caroline eta Mixel' izenarekin bi disko atera genituen, gero Bidaia taldea sortu genuen eta laugarren diskoa prestatzen ari gara orain». "Hitza" irailaren 15ean estreinatuko da ofizialki.

Disko horietan Caroline euskaraz kantatzen entzuten da, Paris frantsesdunetik Euskal Herrira heltzean hizkuntza berria deskubritu zuen: «Oso naturala izan zitzaidan. Uda hemen pasatu nuen, eta Mixelek esplikatu zidan nola egiten zen AEKrekin, eta Baionako Gau Eskolari esker hasi nintzen euskara ikasten. Ikastaldiak ere egin nituen, eta orain berriz ikastaro pribatuak hartzen hasi naiz».

Gaur egun, bere bizitzari begiratuta Phillipsek baieztatu zuen: «Bi uda horiek nire bizitzaren zentzua aldatu zuten; bestela, ez nintzen Euskal Herrian biziko».

**EH JAIETAN>** SAN AGUSTÍN

# ERANDIO Y LAKUNTZA RECOGEN EL TESTIGO EN UN FINAL DE AGOSTO REPLETO DE FESTEJOS

Llega el final de mes y se multiplican las celebraciones. Conciertos, certámenes gastronómicos, comidas populares o, simplemente, kalejiras amenizadas con música durante el poteo. Erandio y Lakuntza son algunas de las muchas localidades vascas que despiden el mes de agosto con las fiestas patronales.

**REPORTAJE**

**Manex ALTUNA**



Inicio de las fiestas de San Agustin de Erandio en 2015.
Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

**Erandio** celebra desde el miércoles las fiestas de San Agustín que concluyen este domingo. El concurso de paellas será el plato principal de este viernes en el que por la noche actuarán Porco Bravo y la banda local el Tren de la Bruja. El sábado se celebra el Gazte Eguna con comida popular, la actuación de la elektrotxaranga Polekeleke de Ipar Euskal Herria, bertsolaris y verbena a cargo de Akerbeltz, entre otros muchos actos. El último día de fiestas será el domingo, que arranca con el concurso de putxeras. La actuación de la banda municipal, la kukaña, el alarde de danzas vascas y las pruebas de bueyes son otros de los actos programados. Antes de dar por terminadas las fiestas a las 23.00 con la traca final, saldrá el toro de fuego.

El sábado arrancan en la localidad navarra de **Lakuntza** unas fiestas que se prolongarán hasta el jueves, 1 de setiembre. A las 12.30 del mediodía lanzarán el txupinazo para dar paso después a la kalejira con gigantes y cabezudos. A medianoche llegará uno de los actos festivos principales de este año con la actuación de Correfoc, ofrecido por la Federación catalana de diablos. La fiesta continuará con el grupo de verbena Laket.

El domingo al mediodía -a partir de las 13.00 horas- se escucharán los sonidos vasco cubanos de la mano de La Jodedera y por la noche actuará Ezten Giro en la plaza. Durante la semana habrá actos para todos los gustos. El lunes se celebra el día de los niños, el martes el de los mayores, el miércoles el del euskara y el Gazte Eguna el jueves como colofón final.

El barrio de San Agustín en **Elorrio** y la localidad vizcaina de **Bakio** también disfrutan de las fiestas durante estos días. El sábado actúa Lehiotikan en las txosnas y se celebra el afamado concurso de sukalki. Asimismo, hay que destacar la romería que se celebra en Artikutza el lunes.

## Euskal Jaia

El verano es tiempo para celebraciones y aparte de las fiestas patronales, muchas localidades aprovechan para organizar otro tipo de festejos. Es el caso de **Mundaka**, que durante todo el mes de agosto ha celebrado distintos actos culturales, que finalizarán este fin de semana con la Euskal Jaia en la que animan a participar con las vestimentas típicas vascas.























## GATIBU MILAFRANGAKO JAIETAN

Talde bizkaitarra Ipar Euskal Herrian arituko da larunbat honetan. Hain zuzen ere, Lapurdiko Milafranga herriko festetan izango dira. 23.30ean hasiko da emanaldia herriko plazan.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

## ASTE HONETAN FESTETAN...

• Abuztuak 26 - irailak 1

BAKIO
BERROBI
BRINKOLA (LEGAZPI)
ERANDIO
ELGOIBAR
ELORRIO
EZKIO-ITSASO
GATIKA
IBARRA
IRUNBERRI
LAKUNTZA
LAUDIO
MILAFRANGA
MUNDAKA
OIKIA (ZUMAIA)
OION
OROZKO
ORTZAIZE
PLENTZIA

Para el viernes han organizado partidos de pala en el frontón y la actuación del grupo de txistularis y el coro del pueblo. El sábado llega el turno del campeonato de marmitas, además de la animación callejera con la fanfarria Adiskideak, la romería en la plaza y Larrain dantza a la medianoche. El domingo por la mañana habrá kalejiras con el coro, trikitilaris y txistularis de la localidad costera.

## Sanantolines

La localidad alavesa de **Oion** celebra también entre el 24 y 29 de agosto las fiestas de Acción de Gracias. Tras arrancar el pasado miércoles con la concentración de peñas y la «bajada del katxi», este viernes se celebra a partir de las 7.30 de la mañana el encierro con reses bravas, que repetirán a las 19.00 de la tarde. Parque infantil, partidos de pelota, verbena y fuegos artificiales son otras de las actividades programadas. El sábado destaca la actuación del grupo Urtz y el domingo la carrera ciclista organizada por el Ayuntamiento.

Las fiestas de Oion finalizarán el lunes a medianoche con la «subida del katxi» amenizada por la charanga y el toro de fuego, además del concurso de zurracapote y sartenadas.

Aunque la mayoría de los actos principales se celebren el próximo fin de semana, localidades como **Orozko** y **Plentzia** empiezan a celebrar los sanantolines a partir del miércoles, 31 de agosto. Asimismo, en **Irunberri**, en Nafarroa, se sumergen en fiestas a partir del martes, día 30. En otros lugares con personalidad propia como **Oikia** en Zumaia y Brinkola en Legazpi también se encuentran en fiestas durante estos días.

Tampoco hay tiempo para el descanso en **Elgoibar** e **Ibarra**, que afrontan el tramo final. En la localidad de la comarca de Debabarrena acogen este viernes el Gazte Eguna, en el que los jóvenes de Elgoibar se medirán en una competición con los de Soraluze por la propiedad de la cima de Karakate. En el primer desafío disputado en fiestas de Soraluze se impusieron los jóvenes de Elgoibar, por lo que habrá ganas de revancha. Los conciertos de Rural Zombies y En Tol Sarmiento pondrán el punto final a la jornada. Por su parte, en **Laudio** encaran los últimos días festivos tras casi tres semanas de celebraciones. Destacan los conciertos de Su ta Gar, Siroka y Esne Beltza. Asimismo, en Ipar Euskal Herria localidades como **Ortzaize** y **Milafranga** celebran sus fiestas patronales durante este fin de semana.















# Ezin kale egin...



## Makeako kabalkada

Antzerkiarekin batera dantza, musika eta bertsoak elkartuko dituen Makeako kabalkada abuztuaren 28an eta irailaren 3an ikusi ahalko da Lapurdiko herriko plazan. Makeako tradizioan oinarrituta, eta beste tokietan ez bezala, ez da toberarik izanen. Nafarroa Behere eta Lapurdiko herri antzerki tradizionala den kabalkaba aktualitateari buruzko ikuspegi kritiko eta umoretsua emateko baliatuko dute Makeako gazteek, adin guztietako herritarrak dantzan eta kantuan jarriz. Kabalkada tradizio handia zuen Makeak 1970eko hamarkadara arte. Erregularki egiten zitutzten obrak herrian, baina, aldiz, azken 40 urteotan ez da ezer egin. Aurten taula gainera itzuliko dira makearrak, herriko tradizioari segida emanez. Emanaldiak bi izango dira, lehena, abuztuaren 28an 16:00etan, hau da, arratsaldeko eguzkipean; bigarrena, irailaren 3an 21:00etan, gauez.

**Abuztuak 28 eta irailak 3,**
16.00etan eta 21.00etan, MAKEA





## Ospa Eguna
### Altsasun

Desmilitarizazioaren aldeko eta Euskal Herrian dauden indar faxisten aurkako ekimena antolatu dute Altsasun. Eguna 12.00etan hasiko da haurrentzako jolasekin. Ondoren, kantu triki poteo antierrepresiboa izango da eta, bazkaria eta gero, kalejira. Ekitaldi nagusia plazan ospatuko da 20.00etan eta, ondoren, kontzertuak izango dira.

**Abuztuak 27,**
Egun osoz, ALTSASU









## Lezamako mugetatik

Andra Mari elizatik aterako da Lezamako mugetatik mendi lasterketa, 10.00etan. Probak 26,5 kilometroko luzera izango du eta 1.200 metroko desnibela. Hiru kategoria ezberdin izango dira: seniorrak, beteranoak eta lezamarrak (bakoitzean gizon eta emakumeen artean banatuta). Bestalde, mendi martxa ere egingo da, 08.30etatik aurrera, ibilbide eta distantzia berdinarekin, baina norgehiagokarik gabe. Horrez gain, Ganguren Ziztu Bizian bigarren lasterketa bertikala ere egingo da.

**Abuztuak 28,**
10.00, LEZAMA



# Oroitarria
## Gaztelugatxen

Gaztelugatxeko oroitarri berriaren inaugurazio ekitaldia egingo da igandean. 10.00etan Bermeoko San Juan portaletik abiatuko da Gaztelugatxe bertaraino iritsiko den mendi martxa. Ondoren, 12.00etan, Gaztelugatxen zegoen nafar gaztelua gogoratzeko oroitarri berria jarriko dute eta ekitaldia ere egingo dute bertan. Nafar gazteluaren oroitarria 2013tik zegoen jarrita, baina suntsitu egin zuten.

**Abuztuak 27,**
10.00, BERMEO



# Orhipean
## festa Otsagabian

Otsagabiko herriak "Orhipean: azturak eta bizibideak" izeneko jaialdia ospatuko du abuztuaren azken asteburuan. Asteburu batez ehun urte atzera egingo du herriak, garai hartan nola bizi ziren erakusten baitu festak. Besteak beste, egun Pirinioetan ia-ia galduta dauden bizibideak ezagutu ahal izango dira. Herriko bizilagunak dira Orhipean festa antolatzen dutenak eta baita bertako protagonistak ere.

**Abuztuak 27,**
09.30, OTSAGABIA



# Artzai
## Eguna

Como cada último domingo de agosto, Uharte Arakil acogerá una nueva edición del Artzai Eguna, Día del Pastor, una cita festiva que rinde homenaje al modo de vida de los pastores. Entre los actos programados destaca el concurso de perros pastor en el que se llevan a cabo varios ejercicios prestablecidos. Tampoco faltarán el concurso de los quesos de leche cruda de oveja latxa de Nafarroa, el Campeonato de Esquileo Mecánico de Ovejas y el de guisos de carne de oveja. Los visitantes podrán también contemplar el proceso de elaboración tradicional del queso, escuchar actuaciones musicales y disfrutar con la tradicional feria de artesanía.

**28 de agosto,**
10.00, UHARTE ARAKIL

# Itsasfest jaialdia
## Ondarretako hondartzan

Igandean Ondarretako hondartzara hurbiltzen direnek tailerrez, jokoez, musikaz... gozatzeko aukera izango dute Itsasfest jaialdiaren baitan. Tokiko produktuak erosteko aukera ere izango da.

**Abuztuak 27,** 09.30, DONOSTIA





# OLATUAK> ZARAUTZ

# BALEARRI

Haritz LARRAÑAGA




Itsaski handia denean, badira adituentzat egokiak diren urautsiak Zarautzen. Getariara bidean, hondoan haitza daukaten zenbait urautsi interesgarri aurkitzen dira. Lehena, moila atzean ateratzen den ezker olatu handi eta arriskutsua da. Balearen forma duen harri handi bat agertzen da itsasbeheran, Balearri, eta itsasgoran, urak estaltzen dueneaan eta olatuak oso handiak direnean ezker olatu bat jasotzen da bertan. Oso gutxi dira bertan surf egitera ausartzen direnak.




- **ERAUTSIA>** PIKO ANITZA, ESKUINA, EZKERRA, PIKOA
- **ITSASKIA>** ITSASKIRRIA (>1m), ITSASKIA (1-1,5m), ITSASKI HANDIA (2,5-4,5m), ITSASKI OSO HANDIA (>4,5m)
- **HONDOA>** HAREA, HAITZA, HAREA+
- **ITSASALDIA>** BEHEAN, ERDIAN, GOIAN, DENAK
- **HAIZEA>** IPARRA, EKIALDEA, HEGOA, MENDEBALDEA
- **ZAILTASUNA>** HASI BERRIAK, TREBEAK, ADITUAK, ADITUENTZAT ERE ARRISKUTSUA

**TAULA>** LONGBOARD, PINTXOA, TAULA, BODYBOARD







## «Solmáforos» para concienciar sobre la protección solar

El Ayuntamiento del municipio malagueño de Fuengirola ha instalado en varias de sus playas «solmáforos», unos semáforos especiales que muestran el nivel de exposición solar y buscan concienciar sobre la necesidad de proteger la piel de los efectos nocivos de la radiación.

## Desde Chile a Australia en una balsa de juncos de indígenas

Una balsa de juncos, que utilizan los indígenas aimaras y que se construye en Bolivia, surcará en el primer semestre del 2017 el océano Pacífico con el objetivo de recorrer los 18.500 kilómetros que separan Chile de Australia. El aventurero estadounidense Phil Buck ha organizado la expedición.

## Primer accidente mortal relacionado con Pokémon GO

La muerte de una mujer tras ser atropellada por un conductor que jugaba a Pokémon GO al volante se ha convertido en el primer accidente mortal relacionado con el popular juego para teléfonos móviles. El suceso ha ocurrido en la localidad de Tokushima, en Japón.

## La diabetes eleva el riesgo de sufrir otras enfermedades

Las personas con diabetes triplican el riesgo de fallecer por enfermedades hepáticas, renales y por cardiopatía isquémica y duplican el de padecer ictus y cáncer en el hígado o el colon-recto, según un estudio de investigadores del Instituto Hospital del Mar de Barcelona (IMIM).

# VIAJAR, UN «COMBUSTIBLE» PARA ESTIMULAR EL CEREBRO

